



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako

Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

5 eta 10 HILABETE BITARTEKO UMEEN

JARDUERA AUTONOMOAREN BEHAKETA

Egilea: Irati Quetzal Ugalde Villa

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Aurkibidea

1.	Sarrera orokorra.....	4
1.1.	Lanaren testuingurua	4
1.2.	Lanaren helburuak	7
2.	Metodologia.....	8
2.1.	Diseinua	8
2.2.	Partehartzaileak	8
2.3.	Tresnak	8
2.4.	Prozedura.....	10
3.	Emaitzak	10
4.	Emaitzen eztabaida	24
5.	Ondorioak.....	27
5.1.	Lanarekin lotutakoak	27
5.2.	Pertsonalak	29
	Erreferentziak	31

5 eta 10 HILABETE BITARTEKO UMEEN JARDUERA AUTONOMOAREN BEHAKETA

Irati Quetzal Ugalde Villa

UPV/EHU

Gradu amaierako lan honen helburua haur txikien jarduera autonomoa aztertzea izan da. Horretarako, Pikler-Lóczy ereduan oinarritzen den haur eskola batean grabaketak eta ostean behaketa sistematikoa gauzatu dira. Bereziki, bost eta hamar hilabete bitarteko haurren jarduera autonomoa ikertu da, berezko mugimendua eta jolas askearen arteko harremana argituz. Alde batetik, umeen banakako azterketan, erritmo eta garapen propioak antzeman dira. Beste alde batetik, taldeko emaitzetan, postura eta mugimenduen eta jolas librearen arteko lotura frogatu eta definitu ahal izan da: mugimendu berriak agertzean ez da jolasik ematen eta behin postura berriak egonkortuta, lehenik ezagunak diren jolasak berriro ageri dira, gutxika jolas berriei lekua uzteko.

Umea, jarduera autonomoa, berezko mugimendua, jolas librea, lehenengo haurtzaroa.

El objetivo de este trabajo de fin de grado ha sido analizar la actividad autónoma de niños-as pequeños-as. Para ello se han realizado grabaciones y una posterior observación sistemática en una escuela infantil que implementa la educación Pikler-Lóczy. En particular, se ha investigado la actividad autónoma de niños-as de entre cinco y diez meses de edad, centrándose en la relación entre el propio movimiento y el juego libre. Por un lado, en el análisis individual se han identificado los propios ritmos y desarrollos de cada niño-a. Por otro lado, en los resultados grupales se ha podido demostrar y definir la relación entre el propio movimiento y el juego libre: cuando aparecen nuevos movimientos no hay juego y una vez que se estabilizan las nuevas posturas, vuelven a surgir juegos conocidos, dando paso a nuevos juegos.

Niño, actividad autónoma, propio movimiento, juego libre, primera infancia.

The aim of this end-of-grade project has been to analyse the autonomous activity of young children through recordings and subsequent systematic observation in a Pikler-Lóczy educational philosophy based school. In particular, we have examined the autonomous activity of children between five and ten months of age, focusing on the relationship between movement itself and free play. On the one hand, in the individual analysis, the rhythm and development of each child have been identified. On the other hand, in the group results, it has been possible to demonstrate and define the relationship between movement itself and free play: when new movements appear there is no game and once the new positions are stabilized, known games reappear, giving way to new games.

Child, autonomous activity, movement itself, free play, early childhood.

1. Sarrera orokorra

1.1. Lanaren testuingurua

Egun neurozientziek egindako ekarpenengatik gauza jakina da haurtzaroaren lehen urteen garrantzia. Izan ere, haur txikiak garai horretan dituen esperientziek eta gaitasunen garapenek eragin zuzena izango dute haurraren portaeretan eta izaeraren bilakaeran (Pikler, 2018; Wallon, 2018). Pikler-Lóczy umeen berezko gaitasunetan eta beraien garapen naturalean konfiantza azpimarratzen duen hezkuntza esperientzia da.

Eredu honen arabera haurtxoa, jaiotzen den momentutik, izaki aktibo eta kompetente bat da, berezko inizatibaduna eta inguruan interesa duena (Tardós eta Szanto-Feder, 2000). Jarduera, gaitasun eta inizatiba hauek denbora pasa ahala eta inguruak eskaintzen dizkion esperientzien arabera garatzen joango dira. Hortaz, helduak haurrari eskaintako espazioak, materialak, harremanek eta begiradak guztiz baldintzatuko dute umearen eboluzioa.

Gure gizartean, orokorrean, haurtxoa eta haur txikia ez da bere kabuz jarduerak egiteko gai den pertsona bezala hartzen. Izan ere, gaitasunik gabeko izakitzat hartzen da, dena irakatsi egin behar zaio eta helduak erabakitzen du zer, nola eta noiz. Ondorioz, helduek haurraren inizatiba, jarrera eta adierazpenak geroz eta gutxiago kontuan hartzen dituzte (Pikler, 2018).

Hortaz, haur jaioberri batek ingurua esploratzeko berezko bulkada duela kontuan izanda eta, jarduera autonomoa ahalbidetuta, umea bere baliabide, interes eta gaitasunen arabera, erabaki propioak hartzeko eta ekintzak egiteko aukera izango du. Baina, nola hasten dira haurraren berezko lehenengo ekintza eta adierazpenak? Nola antzeman ditzakegu?

Umeen lehenengo gaitasunak beraien gorputzarekin lotura zuzena dute, mugimenduarekin zerikusia dutenak baitira. Wallonek dioen moduan, "Hitza agertu arte, mugimenduak baino ez du adierazten haurraren bizitza psikikoa (...). Ingurukoei bere gauzak ulertarazteko, keinuak baino ez ditu haurrak, hau da, bere premia, aldarte edota egoerekin zerikusi eta aldi berean horiek adierazteko gaitasuna duten mugimenduak" (Wallon, 2018, 29. or.).

Beraz, mugimendu eta keinuen bidez haurrak bere emozioak adieraziko ditu eta hau izango da bere inguruarekin duen harremanetan jartzeko modua. Gutxika, umea, bere eskua deskubritzean aldi sensoriomotorrean murgilduko da eta mugimenduaren eta honek eragiten dituen ondorioez konturatzen joango da. Horretarako, zentzumenetatik jasotzen dituen datuen ezagutza sakonagoa eta kanpo objektuek eragindako estimuluen pertzepzio zehatzagoa beharko du (Wallon, 2018). Hortaz, mugimendu askeari, jolas librea gehituko zaio, aurrerantzean bakoitzak bere garapen propioa izango dutelarik.

Emmi Pikler (1985) pediatriak Lóczy institutuan egindako ikerketan, era askean garatutako haurren bilakaera motorea aztertu zuen. Ikerketa honetan garapen motorearen hamar fase ezberdin zituen: ahoz gora egotetik albotz jarri, ahuspez biratu, ahoz gora egotetik ahuspez jarri eta berriro ahoz gora biratu, narras egin, katuka egin, eseri, belauniko jarri, zutik jarri, inora helduta egon gabe pausoak eman eta oinez ibili. Fase batetik bestera igarotzeko bitarteko posturak ere definitu zituen, menperatutako mugimenduak egonkortzeko eta mugimendu eta postura berriak lortzeko ezinbestekoak direnak. Horrela, Piklerrek (1985) haurrek berezko mugimenduaren bidez garapen motore orekatu eta egoki bat lortzeko gaitasuna dutela frogatu zuen, beti ere helduaren esku hartze zuzenik gabe eta inguruan baldintza aproposak ziurtatuz.

Mugimenduaren bitartez haurrak bere eskuak deskubrituko ditu. Kállók eta Balogek (2013) diotenez, hasieran, kasualitatez bere begien aurretik igaro eta, gutxika, mugimendu horiek begiradarekin koordinatuko ditu. Eskuen deskubrimendu hau eta beraiekin egingo dituen jarduerak dira objektuen manipulatzeko jardueren hastapena, hau da, jolas askearen sorrera. Eskuekin egiten dituen jarduerak era askotakoak izan daitezke, elkar ukitu, ahoan sartu, itxi eta ireki edota ertz ezberdinetatik behatu esate baterako. Autore berdinek adinaren arabera jolas moten deskribapena egiten dute, beti ere adinak datu orientagarri gisa harturik, hau da, haur bakoitzaren erritmoen eta interesen arabera jolas batzuk lehenago edo beranduago agertu daitezkeela kontuan izanik. Deskribapen horren arabera, haurrak hiru eta lau hilabete bitarte dituen inguruko objektuekiko interesa agertzen du, begiratzen ditu eta hauek oratzen saiatzen da. Oratze ekintza oraindik ez da oso zehatza eta batzuetan ez da lortu nahi dituen objektuen formara egokitzen, ondorioz, batzuetan oratze ekintza lortuko du eta beste batzuetan ez. Bost hilabete inguru dituen oratze ekintza zehatza da eta, behin objektua lortuta, eskuen artean estutu, birak eman edota astindu bezalako jarduerak egiten ditu. Seigarren hilabetea aldera, umeak objektu bat zoruaren edo paretaren aurka edo objektu bi beraien artean kolpatuta zarata ateratzen duela ondorioztatzen du. Hasieran ekintza hau kasualitatez egingo du, geroago borondatezko ekintza kontziente bihurtuko delarik. Haurra bere lehenengo urtearen lehenengo erdialdean objektu berdinekin arituko da, geroz eta ekintza anitzagoak eginez geroz eta ezaugarri gehiago deskubrituz. Objektu berriei dagokioez, Kállók eta Balogek (2013) hitzetan:

Su aproximación a un nuevo objeto significa aplicar las habilidades que ha adquirido hasta ahora. Si encuentra que el nuevo objeto se comporta de manera diferente a lo que le es familiar, entonces siente el impulso de probar un enfoque diferente en la investigación de ese juguete y, al mismo tiempo,

esto le permite conocer las nuevas posibilidades que el objeto le pueda ofrecer. (21.or.)

Autore berdinen aipamenei jarraituz, zazpigarren hilabetetik aurrera umeak oratze ekintza geroz eta trebeagoa egingo du eta objektu bat ikusita nola hartu jakingo du. Horrez gain, pisuak, formak eta azalera bezalako ezaugarrien kontzientzia hartuz joango da. Ekintzei dagokionez, jauzten utzi eta berreskuratu edota objektuak hartu gabe beraiekin egin dezaketena deskubrituko dute. Lehenengo urtearen amaieran, haurrak bi objektuekin egin dezakeena esperimendatuko du geroz eta gehiago. Hasieran biak begiratzuz edota elkar kolpatuz. Gero, bat bestearen barruan jarri dezakeela eta berriro oratu dezakeela konturatuko da. Modu honetan, geroz eta objektu gehiago manipulatuko ditu, edukiontzi batean objektu bat baino gehiago sartuz eta gero edukiontzari buelta emanaz ateraz. Lehenengo urtetik aurrera bildumak egiten hasiko da eta honekin batera ezaugarrien arabera sailkapenak ere. Horretaz gain, eta eraikuntzaren hastapen bezala, objektu bat beste baten gainean askatuz bertan geratzen dela deskubrituko du eta objektu ezberdinekin ekintza hau errepikatuz, zein objektuekin egin dezakeen eta zeinekin ez ikasiko du.

Jolas askeak, beraz, haurrak inguruko objektuak ezagutzeko egiten dituen ekintzak eta ulertze prozesuak hartzen ditu bere barne. Hau da, objektuekin esperimendatzen eta eskuekin manipulatu objektu horien ezaugarriez eta bere jardueraren eta hauen ondorioen arteko harremanaz ohartuko da. Ez hori bakarrik, gutxika proiektuak planifikatu, hauek aldatu eta egokitu ahal izango ditu, ikasketa prozesuak eta adimenaren garapenak geroz eta konplexutasun handiagoa hartuko dutelarik (Falk, 2009).

Jarduera autonomoa era egokian garatu dadin baldintza zehatz batzuk eman behar dira eta hauek bete eta ziurtatzea helduaren ardura izango da (Kálló eta Balog, 2013). Alde batetik, umearen beharrezan fisiologikoak asetuak egon behar dira, hau da, nekatuta, gosetuta edota higienikoki gustura ez dagoen ume bat nekez jardungo da era autonomo batean. Beharrezan hauen asetzeak zaintzen kalitateaz hitz egitera garamatza. Izan ere, lehen haurtzaroan jasotako zaintzek zuzeneko eragina dute bizitzan, norberaren izaera eta irudia eraikitze eta gaitasunen garapenerako besteak beste (Falk, 2013). Beste alde batetik, heldua eta haurraren arteko harremana konfiantzazkoa izan behar da. Horretarako helduak presente eta eskuragarri egon behar du umearen egunerokotasunean eta umearen erritmo eta gaitasunekiko errespetua eta konfiantza erakutsi behar ditu. Modu honetan, umeak bere kaxa mugitu eta jolasteko segurtasuna eta lasaitasuna sentituko du (Tardos, 2014; García eta Gonzalez, 2008). Horrez gain, jarduera autonomoa garatzeko espazioa modu aproposan aurkeztu behar da:

jolaserako bereziki prestaturiko gunea izan behar da, zaintzetarako erabiltzen direnetatik argi eta garbi bereizia; zoruak irmoa izan behar du, umearen mugimenduen bitartez gorputzak beharrezko tonua erabili dezan eta jolaserako eskainitako objektuak anitzak, ziurrak eta ume bakoitzaren garapen faserako egokiak izan behar dira, objektuen kopurua, tamaina edota pisua bezalako ezaugarriak aintzat hartuz, adibidez (Kálló eta Balog, 2013; Tardos, 2014; García eta Gonzalez, 2008).

Ondorioz, jarduera autonomoaren bitartez, haurrak, batetik, berezko mugimendu edo garapen motore eta postural orekatu bat gauzatzeko esperientziak izango ditu eta bestetik, inguruarekiko egoera ezberdinak biziz, jolas askea edo garapen intelektual egoki bat izateko oinarriak landuko ditu (David eta Appell, 2010).

1.2. Lanaren helburuak

Ikerketa honen helburu orokorra 5 eta 10 hilabete bitarteko haurren jarduera autonomia aztertzea eta honen berri ematea da. Horretarako, umeek ingurutik mugitzeko eta ingurua bera ezagutzeko duten berezko inizatiba kontuan hartzen eta errespetatzen duen haur eskola bat bilatu da. Izan ere, behaketa aurrera eramán den haur eskolan Pikler-Lóczy ikuspegiaren oinarriak kontutan hartzen dituzte. Behaketa helduen esku hartze zuzenik gabeko momentuetan egin da, haurrak gelan beraien kabuz mugitzen eta jolasten egon direnean.

Helburu zehatzak ondorengoak dira: lehenik eta behin, haur bakoitzaren garapen motorra eta posturala zehaztea eta ondoren, garatutako posturretan burututako jolas motak identifikatzea. Bigarrena, gauza bera baina laginaren ume guztiak hartuta egitea da; hau da, haur bakoitzaren garapen motorra eta posturala zehaztuz gero, guztiena bildu, garatutako posturretan burututako jolas motak biltzea eta taldearen uneko mailaren berri ematea.

Espero dena da haur bakoitzaren mugimendu eta posturak propioak izatea eta besteekin konparatuta antzekoak izan ba daitezke ere, horietatik bereiztea ere. Horrekin batera espero dena da jarduera autonomoaren barruan mugimenduaren jarduerak jolasarenak baino ugariagoak izatea eta posturaren arabera jolas mota desberdinak gauzatzea. Bigarren helburuari lotuta, taldearen maila bai mugimendu edo eta jarreretan zein jolasetan agertuko da; jarrera batzuk nagusi erabiliko direlarik eta jolas askea gehien ahalbidetuko dutelarik.

2. Metodologia

2.1. Diseinua

Ikerketa aurrera eramateko, behaketa metodologia erabili da (Anguera 2003). Testuinguru erreal bateko umeak grabatu, behatu eta helburuak betetzeko ekintzak erregistratu dira; kasu honetan, haur eskola bateko talde bateko umeen jarduera autonomoa aztertu da banan-banan. Gauzak horrela, diseinu *nomotetiko*a erabili da, bost haur behatu direlako; *multidimentsionala* izan da, parametro bat baino gehiago kontuan izan delako, ondoren ikusiko den bezala eta *segimenduzkoa* izan da, 10 egunetako jarraipena egin delako (Anguera, 2003).

2.2. Partehartzaileak

Lan hau Haurreskolak Partzuergoko Ugao-Miraballes haurreskolako talde bateko haurrak behatu dira. Ikerketa aurrera eraman ahal izateko grabazioak egin eta horretarako, familiengandik Datu Pertsonalen Babeserako Legearen arabera (15/1999 Lege Organikoa, LOPD) beharrezkoak diren baimenak jaso dira. Guztira bost eta hamar hilabete bitarteko bost umeren jarduera autonomoa grabatu da.

2.3. Tresnak

Ikerketa egiteko erabili den tresna nagusia *grabazioak* izan dira. Horretarako, hamar egunetan zehar haurreskolan bertan umeen jarduera grabatu da goizeko 9:00etatik aurrera gutxienez ordubetez. Guztira, azterketa egiteko 13 ordu eta 4 minutuko grabaketak egin dira. Hona hemen asistentzia taula, haurren momentuko adinak eta jasotako grabaketen denboralizazioa minututan:

1.taula: Asistentzia, adinak eta grabaketen denboralizazioa minututan.

	Egunak										GUZTIRA haur bakoitza
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	10.	
1.umea (5 hile)	20	30	0	18	11	22	30	20	17	40	208
2.umea (6 hile)	18	22	20	16	0	25	12	25	0	0	138
3.umea (7 hile)	16	11	17	18	18	30	10	22	24	17	183
4.umea (9 hile)	12	17	13	11	12	10	13	22	12	13	135
5.umea (10hile)	15	0	10	18	19	12	0	11	17	18	120
GUZTIRA egun bakoitza	81	80	60	81	60	99	65	100	70	88	784
											13ordu eta 4min

0: ez da etorri

Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

Esan bezala, grabazioak hamar egunetan zehar jaso dira eta haur guztiek egindako mugimendu, postura eta jolasak identifikatuz *behaketa taula* sortu da:

2.taula: *Behaketa taula*.

		GARAPEN POSTURALA eta MUGIMENDUA																			
		Ahoz gora		Alboz		Ahuspez				Narras		Eserita		Katuka		Belauniko		Zutik			
		Egon	Besoak-hankak astindu	Jarri	Jarri	Burua zoruari apoiatu	Norabidez aldatu	Atzeraka egin	Ipurdia altxatu	Ipurdia altxatu eta aurrera	Desplazatu	Erdi-eserita (3euste p.)	Eserita	Postura jarri	Desplazatu	Non baiten helduta	Non baiten helduta				
JOLAS ASKEA	Jolasik ez	Jolasik ez																			
		Ingurua behatzen du																			
	Eskuak	Begiratu																			
		Ahoan sartu																			
		Bata bestearekin ukitu																			
		Lurzorua igurtzi																			
	Objektu bat	Ukitu																			
		Hartu																			
		Ahoan sartu																			
		Bota																			
		Astindu																			
		Esku batetik bestera																			
Zerbaiten aurka kolpatu																					
Ertz ezberdinetatik behatu																					
Begietatik urrundu eta hurbildu																					
Esku bat objektu baten barruan																					
Garraiatu																					
Bi objektu	Esku bakoitzean objektu bana																				
	Elkar kolpatu																				
	Bat bestearen barruan																				
	Bat bestearen gainean jartzen saiatu																				

Guztira 16 mugimendu eta postura eta 21 jolas jarduera desberdinak identifikatu dira. Taula honen bidez ume bakoitzaren jarraipena egin da egunegun. Beraz, haur bakoitzeko hamar edo zazpi taula bitarte atera dira, asistentziaren arabera.

Umeei egindako mugimenduak posturen arabera antolatu dira : *ahoz gora, alboz, ahuspez, narras, eserita, katuka, belauniko* eta *zutik*. Esan beharra dago, alboz postura bere horretan mantendu denean soilik hartu dela kontuan, hau da, haur batek ahoz goratik ahuspez postura hartu izan duenean edo alderantziz, alboz postura ez da kontabilizatu, trantsizio posturatzat hartzen delako. Bestetik, katuka irizpidea modu honetan bereizi da: katuka postura jartzea eta katuka desplazatzea.

Beste aldetik, jolas askean ageri diren jarduerak lau taldeetan laburtu dira: *jolasik ez* , *eskuak* , *objektu bat* eta *bi objektu* . Jolasik ez irizpidearen barruan bi jarduera ezberdinak dira: batetik,

jolasik ez, hurrek gorputzarekin postura aldaketa bat edo mugimendu bat egin dutenari dagokiona, hau da, mugimenduan murgilduta egon direnean eta, bestetik, ingurua behatu, ikuspegi berri bat esperimentatzen edota gelako gertakizun bateri so egon direnean.

Ondoren maiztasunaren arabera *grafikoak* sortu eta erabili dira umeen portaeraren joeren adierazle.

2.4. Prozedura

Ikerketa honen lagina aukeratzeko, lehendabizi, hiru zentro ezberdin bisitatu dira, azterketa egiteko egokiena zena aukeratu delarik. Bertan, adinean ume gazteen taldea hautatu da; hau da, bost eta hamar hilabeteko umeen taldea.

Aipatu bezala, grabazioak hamar egunetan zehar egin dira eta bideo bakoitza gutxienez bi aldiz behatu izan da. Lehenengo, behaketa taula sortzeko eta gero ume bakoitzaren bilakaera behaketa taulan zehaztasunez erregistratzeko. Ondoren, egun guztietako datuak batu eta haur bakoitzaren jarduera autonomoa jasotzen duen taula betez, maiztasunaren arabeko postura eta mugimendu, jolas askearen eta postura bakoitzean egindako jolasei loturiko grafikoak egin dira. Azkenik, lagin guztiaren datuak bildu eta taldeko postura eta mugimenduen, jolas askearen eta postura bakoitzean egindako jolasen grafikoak burutu dira.

Ostean emaitzen eztabaida burutu da teoriarekin alderatuz eta amaitzeko, ondorioak atera dira.


3. Emaitzak

Ikerketaren emaitzak hiru irizpide ezberdinen arabera lortu izan dira: haur bakoitzaren berezko mugimenduaren eta posturaren, jolas askearen eta postura bakoitzean ageri diren jolasen arabera. Jolas askearen eta postura bakoitzean ageri diren jolasen grafikoetan, jolas jarduerak kolore tonuetan sailkatu dira: jolasik ez dagoenean morez, eskuekin egindako jarduerak laranja, objektu batekin egindakoak berde eta urdinez eta bi objektuekin egindakoak horiz.


3.1. Haur bakoitzaren jarduera autonomoa

Umeen jarduera autonomo osoaren jarraipena egiteko, bakoitzeko hiru grafiko osatu dira, hamar egunetan zehar egin dituen postura eta jolas jardueren maiztasunaren arabera.

1. umea: haur honi bederatzi egunetan zehar egin zaio behaketa. Ikusi ahal izan denez, hiru postura hartzeko gai da (1. grafikoa): ahoz gora %30, alboz %10 eta ahuspez %60.



1. grafikoa: 1. umearen posturak.




2. grafikoa: 1. umearen jolas jarduerak.

Jolas jarduerari erreparatuta (2. grafikoa), guztira hamabost identifikatu dira. Jolasik ez %27 eta ingurua behatu %15. Eskuekin egindako jarduerak: eskuak begiratu %2, ahoan sartu %7, bata bestearekin ukitu %1 eta lurzorua igurtzi %4. Objektu batekin egindako jarduerak: objektu bat ukitu 4%, hartu 14%, ahoan sartu %18, bota %1, astindu %3, esku batetik bestera igaro %0, zerbaiten aurka kolpatu %3 eta ertz ezberdinetatik behatu %0. Azkenik, bi objektuarekin egindako jarduerak bat ageri da: esku bakoitzean objektu bana hartu %1. Hortaz, gehien eman diren jarduerak jolasik ez (%27), objektu bat ahoan sartu (%18), ingurua behatu (%15) eta objektu bat hartu (%14) izan dira.


Haur honek hartutako postuaretan egindako ekintzak aztertzerakoan (3. grafikoa), ahoz gora egindako ekintzak honakoak izan dira: jolasik ez %18, ingurua behatu %16, eskuak begiratu %6, eskuak ahoan sartu %16, esku bat bestearekin ukitu %4, lurzorua igurtzi %1, objektu bat hartu %11, ahoan sartu %19, bota %3, astindu %6 eta ertz ezberdinetatik behatu %1. Alboz egin dituen jarduerak: jolasik ez %27, ingurua behatu %7, eskuak ahoan sartu %4, lurzorua igurtzi

%9, objektu bat ukitu %7, hartu %27, ahoan sartu %18 eta esku bakoitzean objektu bana hartu %2. Azkenik, ahuspez ondorengo jarduerak ageri dira: jolasik ez %31, ingurua behatu %16, eskuak ahoan sartu %2, lurzorua igurtzi %5, objektu bat ukitu %5, hartu %14, ahoan sartu %18, bota %1, astindu %1, zerbaiten aurka kolpatu %4, ertz ezberdinetatik behatu %1 eta esku bakoitzean objektu bana hartu %2.



3. grafikoa: 1. umearen postura bakoitzeko jolas jarduerak.


2. umea: zazpi eguneko jarraipena izan duen haur honek hiru postura egin ditu (4. grafikoa). Ahoz gora %72, alboz %5 eta ahuspez %23.




4. grafikoa: 2. umearen posturak.

Ume honek egin dituen jolas jarduerak ikusita hamabi antzeman dira (5. grafikoa). Jolasik ez %11, ingurua behatu %14 eta eskuekin lurzorua igurtzi %1. Objektu batekin egindako jardueren artean: objektu bat ukitu %0, hartu %13, ahoan sartu %26, bota %3, astindu %13, esku batetik bestera igaro %11 eta begietatik urrundu eta hurbildu %2. Amaitzeko, bi objektuarekin egindako bi jarduera eman dira: esku bakoitzean objektu bana hartu %3 eta bi

objektu elkar kolpatu %3. Beraz, gehien egindako jolas jarduerak objektu bat ahoan sartu (%26), ingurua behatu (%14), objektu bat hartu (%13), objektu bat astindu (%13), jolasik ez (%11) eta objektu bat esku batetik bestera igaro (%11) izan dira.



5. grafikoa: 2. umearen jolas jarduerak.




6. grafikoa: 2. umearen postura bakoitzeko jolas jarduerak.

Posturen eta jolas jardueren ekintzak elkarrekin aztertuz (6. grafikoa), ahoz gora egindako ekintzak honakoak izan dira: jolasik ez %6, ingurua behatu %8, objektu bat hartu %13, ahoan sartu %28, bota %4, astindu %16, esku batetik bestera igaro %14, begietatik urrundu eta hurbildu %4, esku bakoitzean objektu bana hartu %3 eta bi objektu elkar kolpatu %4. Alboz egin dituen ekintzak: jolasik ez %64, ingurua behatu %18, objektu bat ukitu %9 eta esku bakoitzean objektu bana hartu %9. Azkenik, ahuspez honako jarduerak antzeman dira: jolasik


ez %15, ingurua behatu %30, lurzorua igurtzi %4, objektu bat hartu %15, ahoan sartu %26, astindu %6 eta esku batetik bestera igaro %4.

3. umea: hamar egunetan zehar egin den behaketan ikusi denez, haur honek sei postura aurkeztu ditu (7. grafikoa). Ahoz gora %9, alboz %0, ahuspez %31, narras %7, eserita %46 eta katuka postura %7.



7. grafikoa: 3. umearen posturak.


Jolas jarduerari dagokionez, hamaika bereizi dira (8. grafikoa). Jolasik ez %31 eta ingurua behatu %9. Soilik eskuekin egindako jarduerarik ez da ageri. Objektu batekin egindako jardueren artean: objektu bat ukitu %0, hartu %14, ahoan sartu %18, bota %5, astindu %12, esku batetik bestera igaro %2, zerbaiten aurka kolpatu %6 eta ertz ezberdinetatik behatu %3. Bi objektuekin esku bakoitzean objektu bana antzeman da %0arekin. Gauzak horrela, gehien erabili dituen jarduerak jolasik ez (%31), objektu bat hartu (%14) eta objektu bat ahoan sartu (%18) izan dira.



8. grafikoa: 3.umearen jolas jarduerak.


Postura bakoitzean egiten dituen jolas jarduerari dagokionez (9. grafikoa), ahoz gora dagoenean ekintza hauek eman dira: jolasik ez %3, ingurua behatu %6, objektu bat hartu %15, ahoan sartu

%36, astindu %18, esku batetik bestera igaro %6, ertz ezberdinetatik behatu %9 eta esku bakoitzean objektu bana %6. Alboz egon denean jardueren %100 ingurua behatzen izan da. Ahuspez ondorengo jarduerak ageri dira: jolasik ez %32, ingurua behatu %10, objektu bat hartu %17, ahoan sartu %13, bota %1, astindu %9, esku batetik bestera igaro %4, zerbaiten aurka kolpatu %13 eta ertz ezberdinetatik behatu %3. Narras aritu denean jolasik ez da egon %100ean. Eserita egon denean jarduerak hauek antzeman dira: jolasik ez %15, ingurua behatu %11, objektu bat ukitu %1, hartu %16, ahoan sartu %23, bota %10, astindu %16, zerbaiten aurka kolpatu %4 eta ertz ezberdinetatik behatu %2. Azkenik, katuka postura hartu duenean, jardueren %100a jolasik gabea izan da.




9. grafikoa: 3.umearen postura bakoitzeko jolas jarduerak.

4. umea: haur honi hamar egunetan zehar egin zaio behaketa eta zazpi postura egiten dituela ikusi da. Ahoz gora postura eta alboz ez da eman. Sarritasun nabarmenarekin erabili duena ahuspez izan da, %50arekin. Ondoren, narras %19arekin eta eseri %15arekin. Katuka postura %5ean hartu du, katuka desplazatu %2, nonbaiten helduta belauniko jarri %6 eta nonbaiten helduta zutik jarri %3.




10. grafikoa: 4.umearen posturak.



11. grafikoa: 4. umearen jolas jarduerak.


Haur honek egindako jolas jarduerari erreparatuta, hamahiru identifikatu ahal izan dira (11. grafikoa). Jolasik ez %33 eta ingurua behatu %9. Eskuekin soilik egindako jarduerarik ez da antzeman. Objektu batekin egindakoen artean: objektu bat hartu %17, ahoan sartu %9, bota %7, astindu %4, zerbaiten aurka kolpatu %11, ertz ezberdinetatik behatu %4 eta garraiatu %4. Bi objektuekin egindako jardueretan: esku bakoitzean objektu bana %0, bi objektu elkar kolpatu %1, objektu bat beste baten barruan sartu %1 eta objektu bat beste baten gainean jartzen saiatu %2. Hortaz, maiztasun gehiagorekin egindako jarduerak jolasik ez (%33), objektu bat hartu (%17) eta objektu bat zerbaiten aurka kolpatu (%11) izan dira.



12. grafikoa: 4. umearen postura bakoitzeko jolas jarduerak.


Ume honek egindako posturak eta jolas jarduerak harremanetan jartzean (12. grafikoa), ahuspez dagoenean ekintza hauek eman dira: jolasik ez %9, ingurua behatu %3, objektu bat hartu %25, ahoan sartu %14, bota %11, astindu %5, zerbaiten aurka kolpatu %16, ertz ezberdinetatik behatu %8, esku bakoitzean objektu bana %1, bi objektu elkar kolpatu %2, objektu bat beste baten barruan sartu %2 eta objektu bat beste baten gainean jartzen saiatu %3. Narras egin duenean, jolasik ez %85ean eman da, ingurua behatu %4ean eta objektu bat garraiatu %12an. Eserita egon denean jarduera hauek antzeman dira: jolasik ez %15, ingurua behatu %14, objektu bat hartu %25, ahoan sartu %13, bota %4, astindu %7 eta zerbaiten aurka kolpatu %22. Katuka postura hartu duenean hauek izan dira ekintzak: jolasik ez %83, objektu bat hartu %10 eta bota %7. Katuka desplazatzean %100ean ez da jolasik egon. Nonbaiten helduta belauniko jarri denen jarduera hauek behatu dira: jolasik ez %43, ingurua behatu %40, objektu bat hartu %9 eta bota %9. Amaitzeko, nonbaiten helduta zutik jarri denean, ekintzen %28a jolasik gabea izan da eta %72a ingurua behatzen.

5. umea: zortzi egunetan zehar egindako jarraipenean, lau postura bereizi dira haur honengan (13. grafikoa): ahoz gorak eta ahuspez maiztasun berdina azaltzen dute, %43, ondoren, narras %10 eta, azkenik, eserita %4.




13. grafikoa: 5. umearen posturak.

Jolas askeari dagokionez, hamahiru jarduera antzeman dira (14. grafikoa). Jolasik ez %35arekin eta ingurua behatu %10arekin. Eskuekin soilik egindako jarduerak ez dira ageri. Objektu batekin egindako jarduerak ehuneko hauetan eman dira: objektu bat hartu %19, ahoan sartu %7, bota %3, astindu %5, esku batetik bestera igaro %2, zerbaiten aurka kolpatu %3, ertz ezberdinetatik behatu %8, begietatik urrundu eta hurbildu %1 eta esku bat objektu baten barruan sartu %2. Azkenik, bi objektuarekin egindako bi jarduera antzeman dira: esku bakoitzean objektu bana hartu %1 eta bi objektu elkar kolpatu %4. Beraz, gehien egindako jolas jarduerak jolasik ez (%35) eta objektu bat hartu (%19) izan dira.



14. grafikoa: 5. umearen jolas jarduerak.




15. grafikoa: 5. umearen postura bakoitzeko jolas jarduerak.

Ume honek hartutako posturretan egindako jarduerak aztertzerakoan (15. grafikoa), ahoz gora egindako ekintzak honakoak izan dira: jolasik ez %25, ingurua behatu %6, objektu bat hartu %4, ahoan sartu %13, bota %3, astindu %11, esku batetik bestera igaro %6, ertz ezberdinetatik behatu %19, begietatik urrundu eta hurbildu %2, esku bat objektu baten barruan sartu %2 eta bi objektu elkar kolpatu %9. Ahuspez ondorengo jarduerak ageri dira: jolasik ez %29, ingurua behatu %11, objektu bat hartu %39, ahoan sartu %2, bota %4, astindu %1, zerbaiten aurka

kolpatu %8, ertz ezberdinetatik behatu %1, esku bat objektu baten barruan sartu %3 eta esku bakoitzean objektu bana hartu %4. Narras egin duenean ekintzen %100a jolasik gabea izan da. Azkenik, eserita egon denean bi jarduera antzeman dira: jolasik ez %35 eta ingurua behatu %65.

3.2. Haur guztien jarduera autonomoa

Jarraian, hamar egunetan zehar jaso diren haur guztien datuak batu dira hiru emaitza lortzera bidera. Batetik, haur talde honetan egiten diren postura eta mugimenduen ehunekoak kalkulatu dira; bestetik, jolas jardueren ehunekoak; eta, azkenik, postura bakoitzean egindako jolasen ehunekoak. Horrez gain, gehien erabilitako posturretan egindako jolasen emaitzak ere bildu dira.




16. grafikoa: Postura eta mugimenduak guztira.

Postura eta mugimenduen emaitzei dagokionez (16. grafikoa) hauek dira emaitzak: ahoz gora %26, alboz %3, ahuspez %44, narras %9, eserita %13, katuka postura %3, katuka desplazatu %0, nonbaiten helduta belauniko jarri %1 eta nonbaiten helduta zutik jarri %1. Hortaz, gehien gailentzen den postura ahuspez da, %44arekin.


Jolas jardueren grafikoa ikusi daitekeen bezala (17. grafikoa), 21 ekintza bereizi dira: jolasik ez %28 eta ingurua behatu %12. Eskuekin egindako ekintzetan, eskuak begiratu %0, eskuak ahoan sartu %1, esku bat besterekin ukitu %0 eta eskuekin lurzorua igurtzi %1. Objektu batekin egindako jardueretan emaitzak hauek izan dira: objektu bat ukitu %1, hartu %16, ahoan sartu %14, bota %4, astindu %6, esku batetik bestera igaro %2, zerbaiten aurka kolpatu %5, ertz

ezberdinetatik behatu %4, begietatik urrundu eta hurbildu %0, esku bat objektu baten barruan sartu %0 eta garraiatu %1. Azkenik, bi objektuekin egindako jardueretan: esku bakoitzean objektu bana hartu %1, bi objektu elkar kolpatu %1, objektu bat beste baten barruan sartu %0 eta objektu bat beste baten gainean jartzen saiatu %0. Guzak horrela, ikus daiteke jolas jarduera gehienak jolasik ez (%28), objektu bat hartu (%16), objektu bat ahoan sartu (%14) eta ingurua behatu izan direla(%12).



17. grafikoa: Jolas jarduerak guztira.

Jolas jarduerak lau kolore taldeetan banatu dira: jolasik ez (moreak), eskuak (laranjak), objektu bat (berde-urdinak) eta objektu bi (horiak). Taldekatze honen arabera grafikoa jarraian ikus daiteke eta bertan adierazten denez gehien gailentzen diren jolas multzoak jolasik gabekoak (%41) eta objektu batekin egiten direnak (%53) dira (18. grafikoa).



18. grafikoa: Jolas jarduerak taldekatuta.

Azkenik, fase postural bakoitzean egin diren jolas jarduerak aztertu dira. Hauek dira 19. grafikoa ikus daitezkeen emaitzak:

Ahoz gora posturan eman diren ekintzak: jolasik ez %16 eta ingurua behatu %9. Eskuekin egindako ekintzetan, eskuak begiratu %1, ahoan sartu %4, bata bestearekin ukitu %1 eta lurzorua igurtzi %0. Objektu batekin egindako jardueren artean: objektu bat ukitu %0, hartu %9, ahoan sartu %21, bota %3, astindu %11, esku batetik bestera igaro %7, ertz ezberdinetatik behatu %8, begietatik urrundu eta hurbildu %2 eta esku bat objektu baten barruan sartu %1. Bi objektuekin egindako ekintzak esku bakoitzean objektu bana hartu %1 eta bi objektu elkar kolpatu izan dira %4.

Alboz ondorengo jarduerak antzeman dira: jolasik ez %37 eta ingurua behatu %10. Eskuekin egindako ekintzetan, eskuak ahoan sartu %4 eta lurzorua igurtzi %8. Objektu batekin egindako jardueren artean: objektu bat ukitu %8, hartu %15 eta ahoan sartu %15. Eta bi objektuekin egindako ekintza bakarra aurkitu da, esku bakoitzean objektu bana hartu %4.

Ahuspez posturan hauek dira emaitzak: jolasik ez %22 eta ingurua behatu %16. Eskuekin egindako jardueretan, eskuak begiratu %0, ahoan sartu %1 eta lurzorua igurtzi %2. Objektu batekin egindako ekintzak: objektu bat ukitu %2, hartu %22, ahoan sartu %12, bota %5, astindu %3, esku batetik bestera igaro %0, zerbaiten aurka kolpatu %9, ertz ezberdinetatik behatu %3 eta esku bat objektu baten barruan sartu %1. Bi objektuekin egindako jarduerak: esku bakoitzean objektu bana hartu %2, bi objektu elkar kolpatu %1, objektu bat beste baten barruan sartu %1 eta objektu bat beste baten gainean jartzen saiatu %1.

Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

Narras egiterakoan bi ekintza antzeman dira: jolasik ez %93 eta ingurua behatu %7.

Eserita posturan honako jarduerak eman dira: jolasik ez %14 eta ingurua behatu %16. Eskuekin soilik egindako ekintzarik ez da ageri. Objektu batekin egindako jarduerak: objektu bat ukitu %1, hartu %18, ahoan sartu %19, bota %8, astindu %12, zerbaiten aurka kolpatu %10 eta ertz ezberdinetatik behatu %2. Bi objektuekin egindako jarduerak ez dira antzeman.


Katuka posturan hiru jarduera ageri dira: jolasik ez %91, objektu bat hartu %5 eta objektu bat bota %4.

Katuka desplazatzean ekintzen %100a jolasik gabea izan da.

Nonbaiten helduta belauniko jartzean hiru ekintza antzeman dira: jolasik ez %71, objektu bat hartu %14 eta objektu bat bota %14.

Azkenik, nonbaiten helduta zutik jartzean bi ekintza eman dira: jolasik ez %28 eta ingurua behatu %72.

Laburbilduz, 19. grafikoan bi talde nagusi bereizten dira. Batetik, jolas jarduera jolasik ez edo ingurua behatu nagusitzen diren postura eta mugimenduak (%70 eta %100 bitarte): narras, katuka postura, katuka desplazatu, belauniko nonbaiten helduta eta zutik nonbaiten helduta. Bestetik, eskuekin, objektu batekin edo bi objektuekin egiten diren jarduerak %50a baino gehiago egoten diren posturak: ahoz gora, alboz, ahuspez eta eserita. Hauen artean ekintza anitzenak ageri diren posturak ahoz gora (17 jolas jarduera mota) eta ahuspez (18 jolas jarduera mota) dira.



19. grafikoa: Postura bakoitzeko jolas jarduerak guztira.

4. Emaizzen eztabaida

4.1. Haur bakoitzaren jarduera autonomia

1.umea: Jolas jarduera gehienak ahoz gora etzanda dagoenean egiten ditu eskuekin edo objektu batekin. Ahuspez postura, aldiz, behaketa egunetan egindako jarrera berria izan da. Horregatik, jardueren ia erdia jolasik gabekoak izan dira: mugimenduan murgilduta egon denean edo ikuspegi berriaz ohartzeko ingurunea behatzen egon denean. Postura berria izanagatik ere, maiztasun gehienarekin egindako jarrera izan da; izan ere, behin lortuta, errepikatzen egon den mugimendua izan da eta berehala jakin du ahuspez posturatik ahoz gorara itzultzen, etengabeko birak egin dituelarik.

2.umea: egin dituen jolas jarduera gehienak eta anitzenak ahoz gora izan dira. Jarrera hau da gehien menperatu duena. Ahuspez postura, ume honentzat behaketa egun hauetan postura berria izan da. 1.umearekin alderatuta, ordea, 2.ak ez du lortu ahuspez jarreratik ahoz gorako postura hartzea. Denbora tarte batean larritu egiten da eta helduaren esku-hartzea beharrezkoa izan da umea lasaitu eta ezaguna zuen posturara itzultzeko. Une hauetan garrantzitsua izan da Tardos (2014) eta García eta Gonzalezek (2008) aipatutako helduaren prestutasun eta pazientziak, izan ere, larritze momentu horietan nola eta zein momentuetan esku-hartu jakin behar da: ez goizegi ez beranduegi, lasaitasunez, hitzez azalduz eta hauraren gorputza errespetuz ukituz besteak beste. Beraz, maiztasun gehienarekin agertzen den postura ahoz gora izan da. Hala ere, denborarekin eta helduaren esku hartze egokiari esker lortu du ahuspez posturan lasaitu eta inguruko objektuekin jardutea.

3.umea: haur honek gehien erabili dituen posturak ahuspez eta eserita izan dira, bi hauetan eta ahuspez posturan egin ditu jolas jarduera guztiak, menperatzen dituen jarrera eta mugimenduak direlako. Katuka postura jartzea aldiz, behaketa egunetan egin duen postura berria izan da; horregatik honetan eta narras egiten ez da jolasik agertzen, oraindik mugimenduan murgilduta dagoelako.

4.umea: haur honek ahuspez eta eserita egiten ditu jolas jarduera gehienak. Gainera, maiztasun gehien duten jolasak berdinak dira bi jarreretan: objektu bat hartu, zerbaiten kontra kolpatu eta ahoan sartu. Ume honen kasuan, gainontzeko haurrek egiten ez duten hiru jolas jarduera ageri dira. Batetik, narras egiten duela objektu bat garraiatzen du. Bestetik, ahuspez posturan dagoela, objektu bat bestearen barruan sartzen du eta objektu bat ezaugarri berdinak dituen beste baten gainean jartzen saiatzen da. Hiru ekintza hauek maiztasun gutxirekin ageri dira jolas berriak direlako. Aipatutako azken jardueraren kasuan, objektu bat beste baten gainean jartzen saiatzea, eraikuntzaren hastapena da. Kállók eta Balogek (2013)

azaltzen duten moduan, haurrak objektu bat baino gehiagorekin jolasten hasten direnean, momenturen batean objektu bat beste baten gainean askatzean goikoa behekoaren gainean mantentzen dela deskubritzen dute eta hemendik abiatuta objektu mota ezberdinekin ekintza bera hori esperimendatzen hasiko dira, gutxika eraikuntza geroz eta konplexuagoak eginez. Horrez gain, aipatzekoa da, behaketa iraun duen bitartean, katuka desplazatzea eta nonbaiten helduta belauniko eta zutik jartzea lortu duen ume bakarra dela. Gainera, katuka eta belauniko posturak lortu eta gutxira, inguruko objektuekin elkarrekintzan hasi da. Ekintza hauek objektu bat hartu eta bota izan dira, zorutik altuera batean objektuak lurraren kontra jotzean duen eragina esperimendatzen egon delarik.

5.umea: haur honen kasuan, ahoz gora eta ahuspez posturen maiztasuna berdina dela ikus daiteke. Gainera narras egiten dakien arren, ez du askotan egin izan. Bi gauza hauei eta behaketari erreparatuta, ume hau bira eta bira eginez desplazatzen dela ikus daiteke. Gehien gailentzen diren posturretan egindako jolasak aztertu ezker, honako ondorioa atera daiteke: ahuspez dagoela objektuak hartu egiten ditu eta, behin eskuan izanda, bira eman eta ahoz gora dagoela arakatzen ditu ertz ezberdinetatik ikusita, ahoan sartuta, astinduta, etab. Eskema bera erabiltzen du bi objektu manipulatzeko, izan ere, ahuspez dagoela esku bakoitzean objektu bana hartzen du eta ahoz gora jartzen da bi objektu hauek elkar kolpatzeko. Azkenik, esertzea izan da haur honek behaketa egunetan egin duen postura berria, horregatik maiztasun oso gutxi du eta jarrera horretan egindako jolas jarduerak jolasik gabekoak izan dira. Are gehiago, ingurua behatzea izan da postura honetan egindako ekintza gehiena, bertikalitateak ematen dion ikuspegi berria esperimendatzen egon delarik.

4.2. Haur guztien jarduera autonomia

Talde honetan egindako behaketa unean gehien gailentzen diren posturak ahoz gora eta ahuspez dira. Ahoz gora postura ume hauen jatorrizko jarrera da, hortik abiatuta hasi dira inguruneke objektuekin jarduten eta beste postura batzuk lortzen. Ahoz gora jarreraren gorputz ardatz osoa lurrean jarrita dute eta orekaren kontrola errazagoa da beste posturretan baino. Hemendik ahuspez posturara igarotzeko, albotz jarri behar dira. Ikerketa honetan maiztasun gutxirekin mantendu dira postura honetan; izan ere, trebetasuna hartu ahala, postura hau bira emateko trantsizio postura bihurtzen da. Ezberdintasun handiarekin gehien erabili den postura ahuspez izan da; izan ere, ume guztien garapen posturalean tarte garrantzitsua hartzen du. Alde batetik, desplazatzen ez diren umeengan, ahoz goratik hurrengo postura da eta ikuspegi eta aukera aldaketa dakar (ingurua ikusteko modua, objektuetara heltzekoa, hauekin jardutekoa, gutxika gorputz adarren erabilera ezberdinen bidez mugimendu txiki berriak lortzea...). Bestetik, narras desplazatzen diren haurrentzako, oinarritako postura bat da leku

batetik bestera mugitzeko edota postura horretatik berriak lortzeko (eserita egotetik narras egitera, ahuspez egotetik belauniko jartzera...).

Eserita postura behatutako bost haurretatik hiruk egin dute. Jarrera honetan bertikaltasuna presenteagoa egiten da eta ikuspegi berria esperimentatzeko aukera ematen du. Gainera, bi eskuak libre uztera animatzen direnean, objektuak manipulatu eta jolaserako aukera berriak zabaltzen dira.

Fase posturalekin amaitzeko, esan behar da katuka jarrera hartu, katuka desplazatu eta belauniko eta zutik jarri posturak soilik haur batek egin dituela eta egunotan lortu dituen postura berriak izan direla.

Gauzak horrela, behaketa egun hauetan haur guztiek lortu dituzten postura eta mugimendu berriak era autonomoan lortu dutela esan behar da. Piklerrek (2018) dioen bezala, bakoitzaren garapen fasearen barruan, norbere inizatibaz eta erritmoaz bakoitzaren gaitasunetatik eraikitako lorpenak izan dira.

Jolas jarduerari dagokionez, gehienak objektu batekin egin direnak dira; zehazki, objektu bat hartu eta ahoan sartu izan dira maiztasun handiagoa izan dutenak. Behatutako haur guztiek beraien eskuen kontzientzia dute, badakite beraien interesen arabera objektu batera edo bestera zuzendu ditzaketela eta behin hori jakinda, oratzearen ekintza egiten dute. Objektuak ahoan sartzearen arrazoa bertan duten sentsibilitatea da. Wallonek dioen bezala, “organo guztien artean, ezpainek eta mingainak dute mugimendurik arin eta doienak, eta, aldi berean, sentsibilitaterik finena era bai; (...) bizitza mentalari aukera baliotsuak emango dizkioten zentzumen-konexioen tresna ere badira” (Wallon, 2018, 56.or.). Beraz, umeek objektuak behatzen, eskuekin ukitu eta manipulatu eta ahoan sartzen ezagutzen dituzte horien ezaugarriak eta egin ditzaketen ekintzak.

Jolasik ez egitea eta ingurua behatzea ere maiztasun oso nabarmena dute ikerketa honetan. Honek, umeen mugimendu beharra islatzen du, izan ere, lehen aipatu bezala, adin honetan mugimendua da haurren adierazpen modua.

Eskuekin soilik egindako ekintzak oso gutxi dira. Desagertzen doaz jada eskuak ezagunak direlako eta objektuarekiko interesa nabariagoa delako.

Objektuak banaka ezagutzeko grinaren ostean, hauen artean konbinazioak egiteko interesa agertzen da, hau da, badakizkitez objektuen ezaugarriak banaka, baina, zer gertatzen da horietako bi harremanetan jartzen direnean? Modu honetan bi objektuarekin egindako ekintzak identifikatu dira, eta jarduera berriak izatean, maiztasun gutxi adierazi dute ikerketa honetan.

Jolas jarduera anitzenak gehien menperatzen dituzten eta oreka mantentzeko erosoena diren posturretan eman dira: ahoz gora, ahuspez eta eserita. Jolasik ez eta ingurua behatu jarduerak desplazatzeko diren mugimenduetan eta postura berrietan ageri dira. Lehenengoetan zaila delako desplazatu bitarte objektu bat manipulatzeko eta bigarrenetan postura berriek mugimenduan murgilduta egotera eta ikuspegi berriak arreta jartzera eramaten dituelako.

Normalean, segurtasuna sentitzen duten posturretan jarduera berriak frogatu dituzte eta postura berrietan jada menperatzen dituzten ekintzekin hasi dira objektuak arakatzeko.

Gailendu diren posturak ahoz gora eta ahuspez izan dira eta horietan burututako jarduera gehienak jolasik ez, ingurua behatu, hartu eta ahoan sartu izan dira. Aldiz, postura batean eta bestean ezberdintzen diren ekintzei oso egitea oso interesgarria da. Ahoz gora objektu bat astindu eta ertz ezberdinetatik behatu ageri dira; izan ere, posturak ahalbidetu egiten du objektua astindu eta ondorioak, adibidez soinua, dituen ikustera. Gainera, esku biak libre izatean objektua ertz ezberdinetatik ikustea erraza da, esku batetik bestera igaro edota birak ematerakoan. Ahuspez jarreran objektu bat kolpatu ekintza ageri da, astintzearen antzeko jardura da, baina zoria dagoenez, bere kontra kolpatzean gertatzen dena esperimendatzen dute. Adierazgarria da nola, ahoz gora posturan kolpatu ekintza ez den behin ere ez agertu eta astindu eta ertz ezberdinetatik behatu ahuspez posturan soilik %3an eman den.

Honek guztiak zera pentsatzera garamatza, jardura mota bat edozein posturatan egin daiteke, baina beste jardura mota bat postura konkretu batzuetan soilik ematen da. Beraz, maila batean, haurren garapen postural eta motorrak jolas jardura baldintzatu dezakeela ondorioztatu daiteke.

Azkenik aipatzea ikerketa honetan, Tardósek eta Szanto-Federrek (2000) dioten moduan, umeek izaki aktibo, kompetente eta inizatibadunak direla erakutsi dutela. Zalantzarik gabe, norbere gorputza, besteena eta ingurua arakatzeko berezko interesa agertu dute.

5. Ondorioak

5.1. Lanarekin lotutakoak

Egindako behaketaren bitartez, ezarritako helburuak bete dira. Testuinguru konkretu bateko ume bakoitzaren jardura autonomoa aztertuz, berezko mugimenduen eta jolas askearen arteko bereizketa egin eta bien arteko harremana ikertu ahal izan da.

Hasteko, umeen banakako jarraipena egiterakoan, bakoitzaren erritmo eta baliabide propioak ikusi dira, haur batetik besteetara oso ezberdinak direlarik. Adibide bat, postura berriak lortzeko jarrera izan daiteke. Haur batzuk postura berri bat lortu eta jarraian errepikatu eta

errepikatu aritu dira, beste batzuk, ordea, postura berri bat lortu eta egun batzuetara hartu dute errepikatzeko hautua. Zentzu honetan, hasierako hipotesia bete egin da, hau da, haur bakoitzak bere portaera eta jardura propioa du eta antzekotasunak daudenean ere berezitasunak dituzte beraien artean.

Haur guztien postura eta mugimenduen bilakaera kontuan izanda, Piklerrek (1985) bere ikerketan definitutako postura eta mugimenduak aurkitu dira gradu amaierako lan honetarako egindako behaketan. Horretarako, aipatzekoa da garrantzitsua izan dela hezitzaileek sortu duten giroa, espazioa eta materialaren antolakuntza.

Jolas askeari dagokionez, ikerketa honetan ageri diren ekintza ezberdinak Kállók eta Balogek (2013) azaldutako jolas moduekin bat egiten dute. Ikerketa honetan parte hartutako haurren adin tartean eskuen deskubrimendua ia menperatuta dago eta, beraz, eskuekin egin dezaketenari bide eman diote.

Beste alde batetik, postura eta jolas jardueren bereizketari erreparatzerakoan, jolas jardueren %41a jolasik gabekoak izan dira eta %53a objektu batekin egin direnak. Honen arabera ezingo litzateke hasierako hipotesietako bat baieztatu: espero da jardura autonomoaren barruan mugimenduaren jarduerak jolasarenak baino ugariagoak izatea. Hala ere, hemen hutsune bat dagoela esan behar da, izan ere, ikerketan maiztasuna neurtu da eta ez iraupena. Agian, iraupena kontuan hartu izan balitz, emaitzek beste zentzu bat hartuko lukete, zeren gauza bat da behin edo bitan egitea eta beste bat saioa luze edo motz izatea.

Azkenik, posturaren arabera jolas jarduerak aztertu direnean, bi ondorio nagusi atera daitezke. Batetik, umeek postura berriak lortzen dituztenean arreta mugimenduan jartzen dutela eta, ondorioz, ez dela jolasik ageri. Behin postura berria menperatu eta automatizatuta, haurra mundura zuzentzen da eta aurreko posturretan ikasitako jolasak egiten ditu, astiro astiro jolas berriei lekua emateko. Bestetik, posturaren arabera jolas batzuk edo beste agertzen direla ikusi da. Ondorioz, haurren mugimendu eta posturak, honen jolas jarduerak baldintzatzen dutela esan daiteke.

Honez gain, umeen jardura autonomoa aztertzerakoan zera ikusi ahal izan da: lehenengoz, eta Tardós eta Szanto-Federrek aipatu bezala (2000), haurrek berezko interesa dutela ingurua ezagutzeko eta ez dutela helduaren behar zuzenik objektuen ezaugarriak ezagutzeko edota postura eta mugimendu berrietara heltzeko. Bigarrenez, umeen erritmoak errespetatu ezker, beraien mugimendu eta posturretan armonia, oreka eta segurtasuna lortzen dutela. Eta hirugarrenez, umeak Pikler-Lóczy ikuspegiaren arabera zaindu ezker, haurrek ingurua

arakatzearen plazerra eta gaitasun propioaren gozamina esperimintatzen dutela. Honek guztiak, berezko garrantzia du umeen izaeraren garapenean:

Desde el punto de vista del desarrollo futuro de la personalidad, la experiencia temprana de competencia o su ausencia, es extraordinariamente importante. La confianza que puede tener el niño en sus propias capacidades, en su propia eficacia (...) tiene una importante repercusión sobre su manera de actuar, sobre su comportamiento ulterior, sobre los objetivos que se propondrá. Es decir, influirán en toda la estructura de su personalidad futura. (Pikler, 2018, 60. or.)

Hau guztia kontuan izanik, helduen papera azpimarratu behar da. Jarduera autonomoa ahalbidetzeko, helduek baldintza egokiak ziurtatu behar dituzte eta helduak haurri eskainitako begirada, zaintza, harreman, espazio eta materialek erabat baldintzatuko dute umeen garapena.

Ikerketa hau hasieran esperotakoa baino askoz konplexuagoa izan da. Izan ere, lortutako datuetatik ateratako emaitza eta ondorioak asko sinplifikatu behar izan dira. Hori dela eta, ikerketa osatze aldera jarduera bakoitzaren denbora neurtzea eta aztertzea proposatuko nuke.

5.2. Pertsonalak

Arlo pertsonalean, unibertsitatean eman dudan garai txiki honek nire profesionaltasunean egin dituen ekarpenak aipatu nahi nituzke. Nik haur hezkuntzako diplomatura ikasi nuen duela hamar urte, irakasle eskola Arangoitin kokatuta zegoenean. Arrazoi ezberdinengatik, iaz unibertsitatera itzuli eta gradua egitea erabaki nuen. Diplomatura egin nuenetik unibertsitatearen gaur egungo egoerara salto eginez, erabateko aldaketa nabari dut. Duela hamar urte ikasketak amaitu eta berehala lana aurkitu nuen 0-3 urte bitarteko umeekin eta ikasitakotik ezer gutxi erabili ahal izan nuen. Beraz, adin tarte horretan ditudan ezagutza guztiak laneko esperientziari eta nire kabuz egindako formakuntzei esker izan da. Gaur egun ordea, unibertsitateak haur hezkuntzako lehen zikloan sakontzeko ahalegina egiten ari dela ikusi ahal izan dut, eta horrek asko poztu nau, benetan. Izan ere, eta lanean aipatu bezala, adin tarte honek pertsonon garapenean berebiziko garrantzia duela uste dut.

Bestetik, ikerketa honek zehazki, umeen berezko gaitasunak azpimarratzera eraman nau. Nire lanean eta egunero haurrak behatzeko dudan ikuspegiari jolas askea eta berezko mugimendua funtsezkoak dira, baina, orain arte, ez ditut behaketa horiek azterketa honetan bezain zehatz identifikatu eta jaso. Honek lehen ikusten ez nituen gauzak kontuan hartzera eta nire buruari galdera berriak egitera eraman nau. Puntu honetan, hezitzaileen etengabeko prestakuntza aipatu nahiko nuke. Uste dut gure lana egunez egun hobetzeko eta gizartean gure balioa

Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

aldarrikatzeko ezinbestekoa dela gure profesionaltasuna frogatzea eta etengabeko hausnarketa eta formakuntza bultzatzea.

Azkenik, Gradu Amaierako Lana egiteko prozesuan ikasitakoa aipatu nahi dut. Tutoreak hasieratik proposatutako talde kooperatiboaren lana oso aproposa dela iruditzen zait. Ikasturtean zehar tutore berdinarekin lanean geunden ikasleok hilero talde tutoretzak egin ditugu. Bertan, tutoreak lanaren nondik norakoak zehaztasunez azaldu dizkigu eta ikasleok norberaren lanaren asmoak, aurrera pausuak eta zailtasunak konpartitu ditugu. Horrela, denon artean konponbideak proposatu eta hausnarketak partekatu ditugu. Ez hori bakarrik, elkarri laguntza eta animoak eman dizkiogu, taldea euskarri emozional garrantzitsu bilakatu delarik.

Erreferentziak

- Anguera, M. T. (2003). La observación. In C. Moreno Rosset (Arg.), *Evaluación psicológica. Concepto, proceso y aplicación de las áreas del desarrollo y de la inteligencia* (271-308). Madril: Sanz y Torres.
- David, M. eta Appell, G. (2010). *Lóczy. Una insolita atención personal*. Bartzelona: Octaedro.
- Falk, J. (2009). Los fundamentos de una verdadera autonomía. *Infancia*, 116, 22-31. or.
- Falk, J. (2013). Si tocamos el cuerpo del bebé... In J. Falk (Arg.) *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (7-16. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- García, A. eta Gonzalez, L. (2008). *Desarrollo infantil. Primer año de vida. Factores del entorno*. Buenos Aires: Ministerio de Salud y Bienestar Social de la Nación.
- Kálló, E. eta Balog, G. (2013). *Los orígenes del juego libre*. Budapest: Magyarországi PiklerLóczy Társaság.
- Pikler, E. (1985). *Moverse en libertad*. Madril: Narcea.
- Pikler, E. (2018). La competencia del bebé. In E. Herrán (Arg.) (2018). *Claves de la educación Pikler-Lóczy. Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras* (59-71. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- Tardós, A. eta Szanto-Feder, A. (2000). ¿Qué es la autonomía desde la primera edad? *Infancia*, 62, 5-11 or.
- Tardós, A. (2014). *El adulto y el juego del niño*. Bartzelona: Octaedro.
- Wallon, H. (2018). *Haurtzaroaren psikologia*. E. Herrán (arg). Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.